



**EBAZPENA, 2022KO OTSAILAREN 1EKOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOKO MAISU-MAISTREN KIDEGOKO LANGILE FUNTZIONARIOEN ERKIDEGO MAILAKO 2021/2022KO LEKUALDATZE LEHIAKETAN ONARTUTAKO PARTE-HARTZAILEEN, MEREZIMENDUEN BAREMOAREKIN, ETA KANPOAN UTZITAKO PARTE-HARTZAILEEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA**

Hezkuntza sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren menpeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen artean erkidego mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2021eko azaroaren 12a),

**EBATZI DUT:**

Lehena.- Euskal Autonomia Erkidegoko administraziooko Maisu-maistren kidegoko langile funtzionarioen arteko erkidego mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin-behineko zerrenda argitaratzea, Hezkuntza sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko Aginduaren I. eranskinean zehaztutako baremoaren arabera emandako puntuazioa adieraziz.

Bigarrena.- Argitara ematea aipatutako kidegoetako karrerako langile funtzionarioentzako erkidego mailako lekualdatze-lehiaketan onartuak izan ez diren partehartzaileen behin-behineko zerrenda. Onartu ez izanaren arrazoia adieraziko da.

Hirugarrena.- Lehiatzaileek zuzendu ahal dituzten akats formalak dituzten merezimenduen zerrenda argitara ematea.

Laugarrena.- Epe bat irekitzea, 2022ko otsailaren 4tik 17ra, biak barne, erreklamazioak egiteko eta zuzengarri diren akatsak zuzentzeko.

Bostgarrena.- Erreklamazioak/zuzenketak Interneteko helbide honetan aurkeztu beharko dira: <https://hezigunea.euskadi.eus>. NANarekin eta pasahitzarekin identifikatu ondoren, Eredu pertsonala / Izapideak langileen sailarekin / Lekualdatze Lehiaketa / (Erreklamatu nahi dituzun atalei dagokien esteka aukeratu beharko duzu)

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 1a